

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 1736

*EBAZPENA, 2024ko martxoaren 21ekoa, Giza Baliabideen zuzendariarena, 2023an Winnipeg-eko (Kanada) Polizien eta Suhiltzaileen XIX. Munduko Jokoetan eta/edo Torre viejako Polizien eta Suhiltzaileen IX. Europako Jokoetan parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoko kirolarientzako laguntzen deialdiaren babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena.*

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko irailaren 14ko Aginduaren bidez (2023ko irailaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 182. zk.), 2023an Winnipeg-eko (Kanada) Polizien eta Suhiltzaileen XIX. Munduko Jokoetan eta/edo Torre viejako Polizien eta Suhiltzaileen IX. Europako Jokoetan parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoko kirolariei laguntzak emateko deialdia egin zen.

Laguntzak esleitu eta onuradunei dagozkien ebazpenak jakinarazi ondoren, EHAA n eta Gure net atariko iragarki-oholean argitaratu behar da deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda.

Horregatik guztiagatik,

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea, guztiek jakin dezaten, 2023an Winnipeg-eko (Kanada) Polizien eta Suhiltzaileen XIX. Munduko Jokoetan eta/edo Torre viejako Polizien eta Suhiltzaileen IX. Europako Jokoetan parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kidegoko kirolariei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duen Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko irailaren 14ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Zerrenda ebazpen honen eranskin gisa erantsi da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 21a.

Giza Baliabideen zuzendaria,  
IZASKUN URIEN AZPITARTE.

2024ko apirilaren 11, osteguna

## ERANSKINA

## EMANDAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Ertzaina	Diruz lagundutako jokoak	Emandako zenbatekoa (eurotan)
P72D5	Winnipeg-eko XIX. Munduko Jokoak	2.000,00
P72D5	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	682,18
10105	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	514,03
11092	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	630,48
12245	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	864,59
17042	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	150,04
18047	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	793,3
18054	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	755,24
18144	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	685,28
23194	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	230,5
28518	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	119,74
29110	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	448,93
29366	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	375,73
29642	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	163,89
30520	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	531,45
E53M8	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	413,14
F61A3	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	353,24
G25B9	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	413,87
R19M3	Torrebiejako IX. Europako Jokoak	538,58